

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUETAN ONARPENAREN OINARRIZKO ALDERDIAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETURAKO PROIEKTUA PRESTATZEARI BURUZKOA. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ, HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA, BERDINTASUNEZKO ONARPENA, ETA GURASOEK EDO LEGEZKO TUTOREEK IKASTETXEA AUKERATZEKO DUTEN ASKATASUNA BERMATUKO DIRA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN

Aldez aurreko kontsulta honen xedea da herritarren iritzia eta ordezkaritza handiena duten erakundeena jasotzea, hain zuzen ere ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleen onarpen prozedura arautuko duen foru dekretu berri bat idaztearen eraginpean gerta litezkeenak. Foru dekretu horren bidez, hezkuntzarako eskubidea, berdintasunezko onarpena, eta gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxea aukeratzeko duten askatasuna bermatuko dira Nafarroako Foru Komunitatean.

a) Ekimenarekin konpondu nahi den arazoa

Errealitate sozial berriak aldaketa batzuk ekarri ditu, eskolatzeko irizpide eta printzipio berriak ezartzea dakartenak; irizpide eta printzipio horiek aukera emanen dute familiek ikastetxea askatasunez aukeratzeko duten eskubidea eta administrazio publikoek konpentsazio ekintzak gauzatu beharra uztartzeko.

Horretarako, beharrezkoa da foru dekretu berri bat onestea, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan eskolatzeko prozedura arautzen duena, zeinak aukera emanen baitu oinarrizko bi printzipioak uztartzeko.

b) Arauaren helburua

Foru dekretu berriak bi helburu nagusi izanen ditu:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan eskolatzeko prozedura bat arautzea, zeinak uztartuko baititu berdintasunezko onarpenaren printzipioa eta gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxea aukeratzeko duten askatasunaren printzipioa.


2.- Eskolatzearen antolaketa eta funtzionamendua arautzea: Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak.

Horregatik, beharrezkoa da foru dekretu berri bat idatzi eta onestea, Nafarroako ikastetxe publikoetan eta pribatuetan ikasleen onarpenaren printzipio orokorrak eta prozedura arautzen dituenak, zeinak aukera emanen baitu egungo gizarte eta eskola errealtatearen arazoei erantzuteko hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatuta.

Sinadura: jatorrizkoan ageri da

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN  
ZERBITZUKO ZUZENDARIA



EL      CI  
EDUC  
rut L

Alberto Urrutia Lecumberri